KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2021eko iraila - 219 zkia.



LAUMOKO

“Sortzen eta jotzen gozatzen jarraitzen dugu”

MUTRIKUAR ERRELIKIXAK · MUTRIKUAR ASMATZAILEA

GALBAIXOKO ERMITA ETA KOFRADIA · BURUMENDI GOI MAILAKO ESPEDIZIOAN


Gorritxu
autoak
✓ MANTENIMENDUA ✓ ITV ✓ DIAGNOSIA ✓ MEKANIKA ✓ ELEKTRIZITATEA ✓ GURPILAK
Pol. ANTZOMENDI - Galdona bidea
MUTRIKU
943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com


EUSKARAZ
ZABALDU
2021-2022
AUKERAK
DESCUBRE TODO LO QUE TE OFRECE EL EUSKARA
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Plazo de matriculación abierto
MATRIKULA ZABALIK
IKASTAROAK
Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera
Autoikaskuntza Internet bidez.
Euskaraz ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.
Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.
Azterketa prestatzeko ikastaroak: HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.
MATRIKULALDIA irailaren 24ra arte
16 urtetik gorakoentzat
Langabetu, ikasle eta gurasoek MATRIKULA ERDIA
Ikastaro amaieran BEKAK denentzat (Baldintzak betez gero)
Informa zaitez Udal Euskaltegian
MATRIKULA ORDUTEGIA
ELGOIBAR: 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30
DEBA: 10:00 - 12:30 / 17:00 - 19:30
MUTRIKU: 09:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
COVID-19aren eraginez, moldaketak gerta litezke
DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
ELGOIBAR: Aita Agirre 3, 3.a (eraikin berria) - 943 742 731
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 192 236
MUTRIKU: LUARDO ETXEA, Sabanika aldapa, 4 - 943 603 094

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA
OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 60 35 45
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Alberto Gorritiberea Gorriti

HILOTZEN ESPERANTZA

1.918ko martxotik 1.920ko apirila bitartean gertatu zen, 'Espainiar gripea' bezala ezagutu zen pandemia, 'Trankazo' hitza ere ordutik omen dator. 50-100 milioi hilotz utzi zituena mundu osoan zehar.

Bere garaian eta epe horretan, aukera izan nuen Zestoako Bainuetxean logela eta osasun zerbitzuak zeintzuk izan zituzten ezagutzeko, eta ez nuen bat ere sorpresarik izan; baziren han markesak eta familia aberatsak, gobernu karguren bat zuenik ere etorri omen zen, nahiz eta zurikeria aginduak emango zituen ziurrenik, betiere besteentzat noski! Ehun urte igaro dira ordutik eta Covid-19a heldu zaigu. Aginduak hemendik, aginduak handik, epaileak bere lan 'oparoa' eginez bestetik, 'kobernantza' eskakizunak goikoei eta agindu zorrotzak etxekoei.

Hau ere Mutrikun gertatua da; pasaden urteko itxialdiaren ondoren, apurka-apurka haurrak kaleratzeko aukera zabaltzen hasi ziren hartan, bi ama batu ziren, zigarro bat erretzera, umeak jolaslekuan zaintzen zituzten bitartean. 'Balkoiko polizia' adi egon zen ordea, eta deia luzatu zioten Udaltzaingoari, eta hauen ordutegia amaituta zegoenez gero, deiak Eibarko Ertzaintzako Komisaldegira salto egin zuen, eta bai irmo adierazi ere zer gertatzen ari zen. Patruilaren bat hurrean izango zen ziurrenik, eta baita etorri ere umeen jolasaz gozatzen ari ziren bi amei legea bete behar zutela adieraztera. Baina ikusi gauzak nola diren; bi ama hauek salaketa nondik heldu zen jakitea lortu zuten, eta justu hurrengo asteburuan, toki desberdinetatik etorritako familia bazkari jendetsua ospatu zuten salatariaren etxean. Zurikeria berriro ere!

Bueltatu nadin duela ehun urteko hartara. Gogoan al dituzue noizkoak diren mendi puntako erromeriak? Zahatoan ardo apur bat eta beste ogi koxkor eta gazta puska batekin, egun erdia egiten zuten garaikoak. Orduan ere jende batuketak debekatuta izango ziren noski, baina Itziartik Arratera oinez joandakoak ba omen ziren. Hurrengo egunean lana egin behar ordea baserrian, eta astelehen goizean, lo falta izanagatik ere eginkizunari ekin behar. Gaur egun ez daukagu horrelakorik; lehen 'erromeria' zena, orain 'botilloia' da; etxe ondoan egiten dena, edo eta alboko herrian, trenez edo autobusez joanda.

Honakoa ere pandemia garaian gertatutakoa da. Heldu da gaztez betetako autobusa Ondarroara, eta galdera; 'El bar Muerto' non dago?. Eta ondarrutarrak, ezetz, halakorik ez dutela Ondarroan, Lekeition 'Metro kuadrado' deitutako bat bai, baina Ondarroan ezetz. Halako batean jausi, hauek 'Antiguako kanposantura' zetozen! A ze egoera, Hilotzen esperantza.



ZELAIETA JATETXEA
Olatz auzoa · Mutriku · 943604595
asteburuan zabalik
astegunetan erreserbak

www.lurraldebus.eus 900 300 340 (08:00-20:00)

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Deberaino (20:40)
Donostia	(*) 7:55	11:30	14:30	19:30	...	(*) Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	(*) 14:30	18:00	20:30	(*) Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	...	...

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	...	...
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	...	...

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	(ig) 20:30	(lr.) 21:00	(ig) igande eta jai egunetan (lr.) larunbatetan
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	22:00	
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	(lr.) 7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	(lr.) 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	...

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	...	7:45	orduro	19:45	(lr.) 20:45	(lr.) 21:45
Eibar	...	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00
Mendaro	...	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35
Mutriku	...	8:55	orduro	20:55	(lr.) 21:55	(lr.) 22:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	(lr.) 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	(lr.) 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	(lr.) 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

IKASTURTE BERRIAREN ATARIAN

Irailarekin batera ikasturte berria hasi da. Langileak lanera, ikasleak ikastera, eta kultur, kirol eta gizarte alorretan diharduten elkartekideak beren jardunera.

Hamaika dira beren denbora eta beren dedikazioa herri osoaren intereserako bideratzen duten mutrikuarrak, baina horien lan isilak jarraipena izan dezan jarraitzaileak ere behar dira, haiek ez direlako betiko izango.

Herriko elkarte guztietan errepikatzen den kontua da jende berria gustura hartuko luketela beren jardunean laguntzeko. Izan ere, edozein elkarteren edozein ekintzaz gozatzen dugunean ez baikara ohartzen horren atzean dagoen lanaz, lan luze eta neketsuaz.

Harro ikusiko ditugu gure herriko kirolariak beste herrietakoekin lehian gure herriaren izena eramaten, harro gozatuko ditugu gure herriko kulturgileen eskaintzak, harro hartuko ditugu gure herriko gazteei aisialdia betetzeko aukerak, harro hartuko dugu arazoen aurrean laguntza emateko eskaintza. Harro egotekoa delako gurea bezalako herri batean horrenbeste jende egotea bere denbora eta dedikazioa besteei eskaintzeko prest egotea, bueltan ezer espero izan gabe.

Etorkizunean talde horiek beren jardunarekin jarraitu ahal izan dezaten eta herritarrok ere talde horien eskaintza jasotzen jarraitu ahal izan dezagun, garrantzitsua da jende berria sartzea talde horietan, modu batera edo bestera laguntzera, nor bere gaitasunetik, nor bere neurrian, nor bere zaletasunean.

Hortaz, askok urtearen antolaketa egiten duten ikasturte hasiera honetan, har dezagun pentsamenduan gure ekarpena non egin dezakegun, guztiok dugulako asko emateko, gutxi emanda ere, gutxi hori asko izango delako edozein elkarterentzat.

Kalaputxi



JOSU BORGES MALAVE

Familiari,
jaso ezazue gure doluminik sentikorrena.
Zuen atsekabearekin bat egiten dugu.

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA

SATURRAN GURASO ELKARTEA

Ikas-komunitatea

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta kalaputxi2001@gmail.com
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi,
Josu Larrañaga
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

GALBAIXOKO ERMITA ETA KOFRADIA

Jerusalemen 335. urtean Hilobi Santuaren eliza eraiki zenetik, Gurutzearen Gorespen Eguna ospatzen du eliza katolikoak irailaren 14an. Egun seinalatua gure herrian, batik bat, arrantzaleek Kalbarioko Kristori zioten debozioagatik. Asko aldatu ditugu orain dela gutxi arteko ohiturak, baina, hala ere, jai herrikoiak jarraitzen dute izaten, pandemia honek, aurten bigarren aldiz, era ohikoan ospatzea galarazten badigu ere.

Jose Manuel Arruti Arriola "Gaztaiñei", Galbaixoko Kristo Deunaren Kofradiako lehendakariarekin aritu gara Kalbarioko ermita solasgai izanik, eta Ana Mari Egaña Agirrezabala "Eizagirre" gehitu zaigu kontu kontari.

Noiztik dator Galbaixoko Kristo Deunaren Kofradia, eta zein helburu ditu?

Eskuetan dauzkagun 1996ko Estatutuetan aipatzen da 1930. urtean eratu zela denbora mugagaberako, ideia politikorik eta irabazi asmorik gabe, ermita eta inguruak zaintzeko asmoarekin, eta, jakina, Kristo Deunaren gurtza erlijiosoa hedatu, zein aktibitate kultural eta jaiak mantentzeko. Kofradeen kuotak gastuak sostengatzeko eta helburuak betetzeko hainakoak besterik ez direla izango esanez.

Zeintzuk dira kofradeak, eta zenbat denbora daramazu, Jose Manuel, lehendakari lan horretan?

Ez daukagu datu zehatzik, baina, ezagututako ohiturei jarraituz, esango nuke Laranga, Olaberria eta Ibiri bailarako baserriek zein herriko arrantzaleen txalupek osatzen zutela Kofradia, baita herriko enpresari batzuek ere. Baina, urtetan pasatzen ziren kuota kopuruak murrizten joan dira, gehienbat, berrikuntza handitan sartzean, zorrak berdintzeko kofradeen poltsikoei eragin handia eragiten zielako, eta horiei aurre egiteko laguntza instituzional edo partikularren aldetik kamuts gabiltza. Azken obrei heldu genienean hamasei kofrade ginen, eta gaur egun, zortzi. Erdiak gelditzen gara, zazpi baserri kutsukoak eta bat arrantzale tradiziokoa.

Ezagutu ditudan lehendakariak Juan Mari Egaña, Gregorio Arreitunandia eta Jose Luis Pagoaga izan dira. Azken honek uztean jarri ninduten orain daukadan postuan 1988an, azken obrak hasiberri ziren unetik.

Galbarioko ermita asko aldatu da mendeetan zehar; egingo al zenukete historiaren laburpen bat?

Guk dakizkigunak, beste batzuei esker jaso izan ditugu, eta aipatu behar, beren bizibideko lanez gain, historian, antropologian eta etnografian lan asko argitaratutako Antxon Agirre Sorondo eta Koldo Lizarralde Elberdin. 2000. urtean publikatu zuten "*Las ermitas de Guipuzcoa*" non ari diren besteen artean gure ermitari buruz. Ezin utzi alboratuta Kalaputxiren orrietan hilero bere ekarpen aberatsa egiten duen Josu Larrañaga Arrieta, non 2013. urteko irailean 131. zenbakian "*Mutrikuko Galbaixuak*" izenburuarekin argitara eman zituenak.

Horrela, bada, ermitaren arrastoak 1574 urtera atzeratzen dira. 1588an hondatuta omen zegoen, eta 1596 berriro eraikita. Deitura ezberdinekin azaltzen da idatzietan: *Santo Cristo del Calvario, Humilladero de Maya, Hermita del monte Calvario de Maia* (1925)… Baita euskaraz ere: *Kristo Galbaixoko, Kristo Maixako, Urkamendiko ermitxia*… Ermita zaintzen zuten seroren izen batzuk ere azaltzen dira 1728an, *Ana de Basurco* 1728an hil zena eta hura ordezkatu zuen *Clara de Bidaburu*.

Mutrikuko marinelek leku garrantzizkotzat zuten euren itsas-kokapenerako, horregatik, *Cofradía de Mareantes de San Pedro*k 1808an, herriko beste leku batzuen artean, Galbarioko ermita zuritzea eskatzen du, eta 1816an konponketa egitea eskatzen dio apezpikutzari, eta Udalak onartu. Oraindik orain arte ere, kofradeak arduratzen ziren gauez kanpandorrean argi bat piztuta edukitzeaz arrantzaleen gidari.

Aipatu urteetako ermita txikia zen, 6 metro luze eta 5 metro zabal, kanoi-ganga eta ur bedeinkatu zuloekin ezker-eskuinera, hain zuzen, gaurko presbiterioak osatzen duena. 1900 urte inguruan hasi zen egun duen forma hartzen, nabe berria eraikitzean. 1940an "U" forma duen aterpea gehitu zitzaion. 1983an orduko batzordeak Gipuzkoako Aldunditik erretaula konpontzeko 150.000 pezetako laguntza lortu zuen eta 1986an 1.400.000 pezeta zaharberritze lanetarako.

Auzolanean ekin genion gaur ikusten diren barneko pareten harriak azalarazteari, barnea atondu eta sasoi hartako kantinaren ordez, gaur dagoen jantokia eraiki zen. Beranduago, lurra ere erosi genuen plazaren neurriak bikoiztu eta beheko aparkalekua prestatzeko. Guztira 20.000.000 pezetatik nahiko gora igo ziren kontuak. Kuotak igo eta txekor zozketarako zenbakiak saltzen ibili behar izan genuen herri batetik bestera eta non-nahi dirulaguntzak eskatzen. Apezpikutzara eta Udalera ere jo genuen, baina ukatu egin ziguten euren arrazoiak azalduz. Hala ere, esan behar, udal agintariek lana bukatuta ikusi zutenean, eskatu gabe, arnasa hartzen lagundu zigun 1.000.000 pezetako laguntza jaso genuela.

Urkamendi izena ematen diogu ermitaren atzealdean dagoen muinoari. Zer diozue horretaz?

Berriro lehengo informatzaileetara jo beharko dugu. *Urkamendieta* deitzen dio Josu Larrañagak, eta 1611ko dokumentu baten aurkitu zuela esaldi hau: "*que le diessen la orca y prestassen para el en la montaña de Maya*"





Badirudi, baita ere, zehaztu gabeko dataz, *Aragategi*, gaurko "Atei" baserriaren inguruan pertsona batzuek atxilo omen zituztela, eta gaur egun ermita dagoen lekura igo eta exekutatu. Aurretik omen zuen izen hori hartua mendiak, exekutatzeko lekutzat ibiltzen zutelako.

Ermitaren alde arkitektonikoez gain, zer azpimarragarri?

Erretaulari ematen diote garrantzia adituek: polikromatua, bi zutabe jonikoen artean horma-hobi baten Kristo gurutziltzatuarekin, eta, alboetan, San Juan eta Maria dituela. Idatzietan lau kuadro azaltzen dira, bi 1786koak *San Migel* goiaingerua eta *Kristo Pilato*ren aurrean -euren berririk ez dugu- eta Bittor Furundarena mutrikuarrak 1944an pintatutako *Kristo gurutzean iltzatzen* eta *Kristo gurutzetik jaisten*. Eta, agian garrantzizkoena, "*lignum crucis*" deitzen dieten horietako erlikia: ospakizunetan eliztarrei mun emateko eskaintzen zaien gurutze txikia. Bere erdian ataltxo estali bat du, non Kristoren gurutzearen zati bat behar lukeen; egun, hutsik dago, eta aurreko kristalaren atzean Kristoren argazki bat du jarrita.

Elizaren barneko paretetan harria ateratzean, dio Ana Marik, lanen gidari ibili zen apezpikutzatik bidalitako Zunzunegi jaunak, dena hutsik lagatzea agindu zuen, estetikari begiratuta dirudienez, eta hala kendu ziren Via Cruciseko egonaldiak, eskaiolan ateratako *Azken afaria*...; erretaula ere desagerrarazi nahi izan zuen, baina estetikak bere balioa bazuen, sentimenduek ere berea zutela, eta atzera egitea lortu genuen -parrokian egindako gauza bera egin nahi zuen-. Bittorren kuadroak baserrian eduki genituen gordeta -ukitu batzuk egitera ere etorri zen Bittor bera-Zunzunegik alde egin zuenean jarri genituen berriro paretetan.

Eta zer esango zenukete ermitaren inguruko ohiturei buruz?

Galbaixo jaien aurretik, "bidentziara" (bidegintzara?) deitzen zen; han erabakitzen ziren egin beharreko lanak eta arduradunak izendatu. Bideak atondu, egonaldietako gurutzeak zuritu, inguruak eta ermita garbitu, zutik jartzeko zuhaitza moztu... Galbaixo egunaren lehen orduetan jartzen zen zuhaitza plazatxoan, adarrak kenduta eta enborra zurituta. Urte baten gogoratzen du Ana Marik, nola dultzaineroa zen osaba batekin zuzendu ziren goizeko seietan Maixa baserrira, han zegoen zuhaitza hartu zuten gizonezkoek sorbaldetan, eta esku-soinu eta osabaren dultzainaren doinu alaian igo zuten ermita aurreraino bertan zutituz. Urte batzuetan "kukaña" bezala erabili zen zuhaitza, txanpain botila puntan jarrita, nork eskuratuko -arriskutsua zelako utzi zioten egiteari-. Ondoren hasten ziren etengabeko mezak eguerdira arte, bi edo hiru egunetan, herriko txalupa bakoitzak eskaintzen baitzuen berea eskerrak emanez itsas ibilera onagatik -22 ontzi haundi izan ziren, baita beste txikiago batzuk ere, eta denek izaten zuten beren meza-, montxorra egiten zuten bukaeran, gaileta eta ardo zuriarekin. Eguerdi aldera, orain bezala, bertsolariek, herri-kirolek eta dantzek hartzen zuten plazatxoa. Jaiak bere errepetizioa izaten zuen bi asteburutan.

Alde erlijiosotik begiratuta, Aste Santuak izaten zuen bere garrantzia, herritik heltzen baitzen jende andana gurutze-bidea egitera. Bailaretako norbait hiltzen zenean, ondorengo bederatzi egunez errezatzen zen errosarioa, serora lanak egiten zuenak zuzenduta -Maixako Joakina, Pikuako Simona, Eizarreko Ana Mari...-, azkenengo egunean errosarioaren ondoren meza ematen zen hildakoen izenean. Pazko-txiki egunez txingorretik babesteko meza ere, urtero ematen zen.

Gaur, auzo-lanean egiten ziren zenbait eginkizun udalak egiten ditu.

Aurrera begira, beste ekintzarik ikusten al duzue?

Buruan baditugu ideiak, baina gauzatzeko, jakina, dirua behar, eta hori dugu gainditzeko oztopo zaila. Frontoi txikiren bat dugu horien artean.





Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
egunero zabalik
943 60 34 39 · 688788693 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

ERRUGBIAN ENTSEGUA EGITEKO PREST

Urritik aurrera hasiko da 18 urte azpikoen liga txapelketa. Aurten ere, azken bi urteetan bezala Zarautzeko jokalariekin bat eginez osatuko dute taldea. Aurreko urteetan ere elkarlanean aritu ziren Zarautzekoekin. Beraz, laister norgehiagoka dotoreak ikusteko parada izango dugu. Horrez gain, herriko txikienekin, 10 eta 12 urte azpikoekin, hainbat topaketa egitea posible izango da aurten; egoera berezia den arren eskolar arteko araudiak hala baimentzen du. Kiroldegian entrenatzeko,asteartetan, zazpietatik zortzitara bilduko dira, aldiz, asteazken eta ostegunetan Mikel Deunaren zelaian izango dute aukera. irailaren 25ean, larunbata, lagun arteko partidua ospatuko da; ohorezko B mailan dauden Zarautz eta Durangoren artekoa. Ondoren, hirugarren denboraz gozatuko dute jokalariek. Apirilaren 18an berriz, Ondarroako hondartzan, Zarautz, Durango eta nola ez Mutrikuko 16 urte azpiko taldeen topaketa antolatu dute M.R.T kideek. Bada, herriko errugby taldearen ibilbidea badoa aurrera, eta errugbizale diren eta ez diren guztiei deia egiten die parte hartzera.



HELMUGARA ONDO BAINO HOBETO HELDU GINEN

Val d´Aran by UTMB lasterketaren ahizpa txikia bezala ezagutzen den PDA (Peades d´Aigua) lasterketan parte hartu du mutrikuar bikoteak: Kosme Arrietak eta Nekane Ituartek. Desnibel positiboa baino, desnibel negatibo handiagoa metatzen duen 55 kilometro luzeko mendi lasterketa da hau. Lasterketa gogorra bezain ederra: 3.100eko desnibel positiboa duena, eta 3.900 desnibel negatiboa. Ez dago ukatzerik, lasterketa azkarra eta exigentea. Hala eta guztiz, eta gezurra badirudi ere, gogortasuna alde batera utzita, bertako edertasunaz jabetzeko eta onddoak batzeko astia ere izan zuten. Bai, izan ere onddoak batzeko denbora hartu zuen Nekanek, eta helmugan eginiko sarrera ez dute ahaztuko bertako ikusle eta parte-hartzaileek; esku bakoitzean onddo banarekin sartu baitzen helmugara mutrikuarra. Ikusleek eta etxekoek txalo artean eta irribarrea ahoan hartu zuten korrikalaria. Guztira, 1.600 korrikalari bildu ziren uztailean bertan. Hain zuzen ere, irteera Pla de Beret-en izan zen goizeko 6:30tan. Eta, 1.800 metroko altuerara heltzean beruntz hastea tokatu zitzaien: "*10 km egin orduko belaunak puskatuak nituen maldaren gogortasunak eranginda*" dio Nekanek. Ondoren, Bagergue eta Salardú herrietatik pasatu ziren. Jarraian malda gogorra zetorkien igotzeko Colomers arteko bidean; punturik gorena 2.600 metrotara kokatzen zen. Hortik aurrera, jaitsiera azkarra zetorkien. Esan bezala, lasterketa azkarra, ordea, ederra. Bederatzi ordu eta berrogei minutu egin ondoren heldu zen Kosme helmugara; 100. postua hartuz gutxi gora behera. Eta Nekanek hamabi ordu eta erdi behar izan zituen helmugara sartzeko, 600. postuan gutxi gora behera bukatuz. Ituartek, azken 14 kilometroak bi onddorekin egin zuen korrika; meritu galanta! Mutrikuar korrikalariek giro aparta izan zutela aipatu dute, eta eskerrak eman nahi dizkiete bertaratu ziren guztie, baina, bereziki Iñakiri; beraien lasterketa-lagun eta gidari izatearren.



MUTRIKUKO TANATORIOA
Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

GOIXENETXEKO GAZTAK
HIRUGARREN SARIA ORDIZIAN

Ordiziako 48. Gazta Txapelketan Beñat Egañak hirugarren saria irabazi du hiru hilabete eta erdi eta lau hilabete artean ondutako ketutako gazta batekin.

Pozik jaso dute saria, Ordiziako Udalaren garaikurra eta 500 euro. Ardi latxaren esnearekin gazta egiten dutenentzat, hemen inguruko sari garrantzitsuena baita. Lehen aldiz aurkeztu dira gazta ketuarekin, Ordiziako Txapelketan irabazle horietakoak zirela jakinda, eta asmatu egin dute.

Guztira 45 gazta aurkeztu omen ziren. Hamalau izan ziren lehen langa gainditu zutenak, eta, horien artean, bost aukeratu finalerako. Aitak ezagutu omen zuen euren gazta aukeratutakoen artean, eta, ezustean harrapatuta, kirioak dantzan jari omen zitzaizkien. "*Ezin genuen sinistu*" diote. Hobekuntza ahaleginean etenik ez egitera bultzatzen ei die horrelako sariak, merkatuan ere izaten duelako etekinik.



EUROPAKO TXAPELDUNAK

Urte arraro bezain emankorrean lorpen berria egin dute Eneritz Lizardik eta Mikel Mancisidorrek: Europako txapeldunak. Valladoliden Iscar herrian jokatutako Europako txapelketan.

Eneritzek eta Maite Ortizek osatutako bikotea estu gailendu zitzaien Frantziako ordezkariei finalerdietan eta Arakistain-- Lejardi bikoteari finalean. Mikelek, berriz, Aron gasteiztarrari irabazi zion finala, estu, baita ere.

Europako txapeldun biak Valladoliden bertan jokatuko den Munduko txapelketa dute hurrengo hitzordua. Gauzek bere bidetik jarraitzen badute, aurki izango ditugu herrian munduko txapeldunak!



EKAINA

4 positibo

1	3	3	4	5	6
0	0	0	0	0	0
2	2	2	2	1	1
37,64	37,64	37,64	37,64	18,82	18,82

7	8	9	10	11	12	13
0	0	0	0	0	1	1
1	1	1	1	1	1	2
18,82	18,82	18,82	18,82	18,82	18,82	37,64
14	15	16	17	18	9	20
0	0	2	0	0	0	0
2	2	4	4	4	4	4
37,64	37,64	75,27	75,27	75,27	75,27	75,27
21	22	23	24	25	26	27
0	0	0	0	0	0	0
4	4	4	4	4	3	2
75,27	75,27	75,27	75,27	75,27	56,45	37,64

28	29	30
0	0	0
2	2	0
37,64	37,64	0,00

UZTAILA

131 positibo

			1	2	3	4
			1	0	0	0
			1	1	1	1
			18,82	18,82	18,82	18,82
5	6	7	8	9	10	11
1	2	12	1	3	8	7
2	4	16	17	20	28	35
38	75	301	320	376	527	659
12	13	14	15	16	17	18
0	3	10	8	6	11	3
35	38	48	55	61	72	75
659	715	903	1.035	1.148	1.355	1.411
19	20	21	22	23	24	25
2	2	5	6	5	1	6
76	76	69	74	76	69	74
1.430	1.430	1.298	1.393	1.430	1.298	1.393

26	27	28	29	30	31	
1	5	7	4	10	1	
69	71	68	64	68	58	
1.298	1.336	1.280	1.204	1.280	1.091	

ABUZTUA

61 positibo

						1
						0
						55
						1035
2	3	4	5	6	7	8
3	0	3	0	0	3	2
56	54	52	46	41	43	39
1054	1016	979	866	772	809	734
9	10	11	12	13	14	15
0	2	4	3	1	1	4
38	35	32	31	22	22	26
715	659	602	583	414	414	489
16	17	18	19	20	21	22
0	1	1	5	3	5	5
23	24	22	27	30	32	35
433	452	414	508	565	602	659
23	24	25	26	27	28	29
2	3	0	1	2	1	3
37	38	34	32	33	33	32
696	715	640	602	621	621	602

30	31
1	2
33	34
621	640

COVID-19a UDAN

Irailean sartuta gaudela, COVID-19 birusak kutsatutakoen tasa jaiten ari da Euskal Herri osoan eta Mutrikun ere bai. Aitzitik, uda gogor joan da, izan ere, uztailaren 10etik irailaren 4ra arte gorrian egon baikara, hau da, 400eko tasatik gora eta hiru astez 1000ko langa gainditua. Gauzak zuzentzen ari direla dirudi, eta udazkenean babes neurriak erlaxatuko direla dirudien arren, aiduru jarraitu beharko da, lehenago ere uhin ospetsuak behera egin bezala azkar asko egin baitzuen gora ere. Bitartean, eskola garaia eta guztiontzako kurtso berria iritsi denean, jarraitu dezagun denon arteko hori zaintzen, mereziko digu eta,

MAIDER PINTO
14 urte zuekin
estetika eta terapia naturalak
Barrenkale 9, behea · 20830 MUTRIKU · Tel. 650 341 768

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

BADA POSIBLE II ARRAKASTATSUA

2020 urtean COVID-19ak eragindako egoerak hala behartuta, kultur eskaintza oso mugatuta izan genuen herrian, gainerako herrietan bezalatsu. Hartu beharreko babes neurriak kontuan hartuta, udalak Institutuan karpa ipini zuen eta hainbat ekitaldi antolatu ziren herritarren gozamenerako.

2021 urtean egoera berean aurkituta, iazko bidea hartu zen eta berriz ere karpa ipini zen toki berean. Bi astetan zehar, Euskal Herri mailako artista entzutetsuak ekarri ziren eta beraiekin batera herriko taldeak agertu ziren oholtzan herritar guztien gozamenerako. Ia ekitaldi guztietan aulki guztiak beteta, bertaratutakoen asebetetze maila altua izan zen. Tamalez, aurtengoan ere jairik ez da izan herrian eta plazetan ikuskizunik ez dugu izan gozagarri. Aitzitik, mutrikuarrok aurtengoan ere aukera izan dugu kultur produkzioaz gozateko, euskal eta mutrikuar kultur produkzioaz.



MANKOMUNITATEAK LUR AZPIKO ZABORRONTZI GUZTIAK LURRAZALERATUKO DITU

2020ko abenduaren 16ko Batzar Orokorrean hartutako erabakia abian jarriko du irailaren 13tik aurrera Mallabian, Ermuan, Eibarren, Elgoibarren eta Mutrikun. 52 zaborrontzi lur azpitik lurrazalera aterako dituzte. Mutriku izango da aldaketak egingo dituzten azken herria, eta azaroaren 2rako bukatuta egotea aurreikusten da.

Gastuen murrizketa dute helburu. Mekanismo mekaniko eta elektronikoen bidez funtzionatzen dutenez, hezetasunarekin erraz matxuratzen omen dira, eta konponketa luzeak izaten direnez, askotan, herritarrek ere eragozpenak pairatu behar izaten dituzte.

Sosak guztioi eragiten digute, baina gure ikusmenean eta usaimenean ez al dute eraginik lurrazaleko edukiontziek? Estetikak ez du garrantzirik?



ZUBIAURRE, GIPUZKOAKO TXAPELDUN

Legazpin jokatu zen Gipuzkoako LII. Artzain Txakur Txapelketan Jabier Zubiaurre Gorixo eta Mendi bere txakurra izan ziren txapeldunak, Ataungo Aitor Tatok Nabar txakurrarekin eta Oñatiko Migel Arregik Lagun txakurrarekin estu hartu ondoren.

Txapeldunak, txapeldunordearekin batera, Gipuzkoa ordezkatuko du irailaren 18an Garain jokatuko den Euskal Herriko txapelketan, eta hor irailaren 26an Oñatin jokatuko den Nazioarteko txapelketarako txartela lortzen saiatuko da.

Zorionak Jabierri eta Mendiri lortutako txapelarengatik eta zorterik onena aurretik dauzkaten erronketarako.



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

FRANCISCO RAMON BAREA MENDIZABAL

mutrikuar asmatzailea

1893ko maiatzaren 14ko arratsaldeko lehen orduetan euri jasa handia izan zen Donostian. Iragarpenek ez zuten ematen Francisco Ramon Barea Mendizabalek bere asmoa aurrera eramaterik izango zuenik. Baina frogak ikustera Donostiara hurbildutako mutrikuar arrantzale andanaren pozerako, eguzki izpiak atera ziren udaberriko arratsalde atsegin batek ordezkatuz lehen orduko egoera.

Belozipedo nautikoa frogatzeko asmoa zuen mutrikuar industrial iturginak Donostiako Kontxa badian. Belozipedoa 35 bat Kg. zituen, pare bat metro luzeran eta metro beteko zabalera. Froga hau egiteko bereziki egina zen, eta, asmaketa guztiak bezala, zuzenketa eta hobekuntzak izatera irekia ondorengo emaitzen arabera. Erabilitako material gehiena zinkez egina zen froga egunerako, baina, ondorioak onak izanez gero, zinka galbanizatutako galtzairuaz ordezkatzeko asmotan, sendoago eta iraunkorrago izateko.

Deskribatzen den makinaren oinarria puntadun formako bi kaxa luzez osatua dago, flotagailu lanak egiteko, eta biek burdinazko listoi tankerako bi barra dute elkartzeko, tartean 40 bat zentimetroko tartea utziz. Tarte horren atzeko aldean gurpil bat darama, sasoi bateko baporeen antzekoa, non biratzerakoan ura desplazatzen duen. Azalean, zeharkako barretan lotua belozipedo baten antzeko sistema bat du, pertsona jarri eta pedalei eragiteko moduan eta eskuekin maneiatzeko biradera bat. Hankekin pedalei eragitean, hauei lotuta duen platoak biratzen du, eta hortzetan sartzen den kate baten bidez, gurpilaren ardatzari lotuta dagoen piñoiari eragiten zaio hura biraraziz, urari eragitean tramankuluak aurrera edo atzera eginez, biraketa alde batera ala bestera eginez. Atzeko aldean, ur azpian, lema bat du biraderari katez lotua, belozipedoa ezkerrera edo eskuinera eramateko.



SAN SEBASTIÁN.—EL INVENTOR DEL VELOCÍPEDO NÁUTICO SR. BAREA HACIENDO PRUEBAS DEL NUEVO APARATO EN «LA CONCHA».

Kaiko arranpatik jaitsi zuten tramankulua uretara, eta Ramon Barea gainean jarrita egin zuen aurrera badia aldera, ontzi txikiez inguratuta. Ederki moldatu zen itsas-uren gainean batera eta bestera maniobratuz. Berriro porturatzean ez zuen lortu ahal zuen abiadura, erraz konpondu zitekeen arazo tekniko txiki bat izatean. Beste froga bat egitekotan gelditu zen mutrikuarra.

Honaino orduko "*La Voz de Gupuzcoa*" egunkarian argitaratutako hurbileko itzulpena. "*El Fuerista*" eta "*La Ilustración española y americana*" egunkarietan ere argitaratu zen gertakizuna.

Deskribapen xehe batez eta makinaren planoez lagunduta aurkeztu zuen gure Ramon Bareak Parisko "Le Ministère du Commerce et de l´Industrie" bere asmakizuna 1983ko ekainaren 3an "*Vélocipede maritime, Systeme Barea*" izenarekin patentea lortzeko asmotan. Urte bereko irailaren 15ean onartu zioten eta asmakaria 15 urterako erregistratuta gelditu zen.



Francisco Ramon Barea Mendizabal Mutrikun jaioa zen 1863ko apirilaren 23an. Donostian ezkondua Josefa Francisca Eufemia Yrazu Mendizabalekin 1889ko azaroaren 5ean, eta 1933ko abenduaren 21ean hil zen Donostian.

SUBELTZ
eguneko menuak, otartekoak...
Atxitxin kalea 10 · 943 60 44 98 · Mutriku

Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

LAUMONO

Sortzen eta jotzen gozatzen segitzen dugu

Uztailaren 30ean aurkeztu zuten diska berria. Denbora luzez jendaurrean jo gabe… Ikusle kopurua mugatuta, jendea eserita eta musukoa jarrita… egoera arraroa. Baina tranpaldora igo bezain azkar zaleen harrera beroa, konexioa nabaritu zuten eta baretu ziren barruald-eak. Talde osoarekin biltzea ezinezkoa zenez, Enekoitz Andonegi bateri jolarekin egin dugu hitzordua.

Zenbat urte zuzenean jo gabe?

Duela hiru bat urte edo Saturrango hondartzako txiringitoan jo genuen baina bapatean sortutako kontu bat izan zen, entsegu moduko zerbait. Modu ofizialean badira urte batzuk, bai.

Entseguak...?

Gure hasierak Katetxeko eraikinean kokatzen dira, denbora bat han izan ondoren udaletxeak esan zigun ezin genuela han jarraitu, segurtasun kontuak aipatu zizkiguten, eta handik atera behar izan genuen. Beste denbora batean lehengo Egasan fabrika izandakoan aritu ginen. Hura ere utzi behar izan genuen. Ondoren Berritxun eskeini ziguten aukera bat eta hara joan ginen, urtetxoak dira han gaudela.

Nola marraztuko zenuke Lau Mono taldearen ibilbidea?

Burumendiko garaje batean eman genituen lehen pausoak, Josu Orbegozori esker, 80. hamarkada bukaeran. 14 edo 15 urte izango genituen. Ordutik aurrera Jon Iturrino gitarra joleak eta biok betidanik izan dugu harremana, nahiz eta tartean Jon "Ehun Kilo" edo "Hira" taldeetan aritu eta ni "Brankan" taldean adibidez. Bitartean Jonek kantu batzuk zituen buruan bueltaka… eta nik bateriakin laguntzen nion. 90. hamarkadan Katetxeko lokalera mugitu ginen Udalari eskaera bat eginda. Bertan, besteak beste, "Hamen", "Brankan" eta "Aiumeen Basoa" moduko taldeak ere aritzen ziren, eta azken talde honetako Egoitz Andonegi (baxua) eta Ibai Mendinueta (teklatua) batu zitzaizkigun Laumonora. Bestalde, Rikar Garagarza Bilbon zebilen "Fantabulous & Furry" izeneko taldean abesten eta aurretik ezagutzen genuenez, proposamena luzatu genion. Horixe izan zen hasiera.

2001. urtean kaleratu genuen lehenengoa izango zen "Beidau" diska. Egasan-eko lokalean geuk grabatu genuena. Gero bigarrena etorri zen, 2010. urtean "Andrenalinia" izenarekin, Berritxuko lokalean geuk grabatua baita ere. Ordurako Ibai Mendinuetak taldea utzi behar izan zuen, eta Egoitzen ordez Iñigo Gorritxategi sartu zen taldera. Hala ere, esan beharra dago Egoitz eta Ibai beti izango direla Laumonoren partaideak, beraiei esker hasi baitzen Laumono martxan. Aurten, 2021. urtean hirugarren diskarekin gatoz, "Umezurtzak Jupiterren" izenekoa. Esan dezakegu hamar urtean behin edo atera ditugula diskak. Gure asmoa musika egiten ondo pasatzea da. Sekula ez dugu sentitu diskak ateratzeko presiorik. Urteak pasa ahala kanta ezberdinak sortzen dira. Gustuko materiala aukeratu eta diska baterako ematen badu, aurrera.

Diska batetik besterako eboluzioa nolakoa izan da?

Eboluzioa nabarmena da hiru disketan, bai teknikoki bai musikalki. Teknikoki aurreko biak autoprodukzioak izan dira, guk geuk entsegu lokaletan grabatu eta kanpoko estudioetan nahastu eta masterizatuta. Azken hau ordea, "Umezurtzak Jupiterren", AME estudioan grabatu eta nahastu dugu Axular Arizmendiren gidaritzapean, eta hau hoberako izan dela esango nuke. Musikalki lehenengoak rock-blues airea izan dezake, Ibai Mendinuetak teklatuan jartzen dion giro berezi horrekin. Bigarrena, berriz, gordinagoa dela iruditzen zaigu, "Hard-Rock" estilora, eta hirugarren hau, berriz, urte hauetan guztietan egindako eta hausnartutako musikaren nahasketa bat izan daiteke.

Zuen lan metodoa zein da?

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01



Batzuetan, entseguetan inprobisatzen ateratzen dira ideiak, eta gero garatzen ditugu zehaztasun gehiagoz. Bestetan, bakoitzak bere aldetik idazten eta sortzen du, biltzen garenean bakoitzaren ideiak partekatzen ditugu eta lan berriak ateratzen dira. Esan beharra dago edozein instrumentutatik sor daitekeela abestiaren oinarria, ahotsa barne.

Zein iturritatik edaten duzue?

Rock klasikotik gehienbat (Buddy Guy, Led Zeppelin, Deep Purple, Jimmy Hendrix, ZZ Top, Beatles, Rolling…) oinarria hori dela esango nuke, izan ere, orain dela gutxi arte haien bertsioak jotzen jarraitu dugu zuzenean ere. Gero handik eta hemendik entzuten, gaur egungo musika baita ere, partaide bakoitzak bere aletxoa jarrita geure estilora moldatzen ditugu abestiak.

Grabaketak lan handia eman dizue?

Nahiko erraz egin dugu. Axularren estudioan egin dugu eta oso gustura aritu gara. Lan ona egin du eta pozik gaude guztiok.

Bada posible jaialdiko kontzertuan ere berak eraman zuen soinua eta jendearen harrera ona sentitu genuen, ondo entzuten zelako. Alde horretatik ere gustura.

Bideoklipa ere plazaratu duzue...

Bai. "Alkolitxua" abestiarekin, eta Youtuben dago jada. Covid kontuak dena mugatu du baina gu aktibatu egin gaitu konfinamentu garaian. Zabiel kultur etxea guretzat izan genuen denbora horretan beste ekintzarik ez zegoelako. Luzea eta konplikatua izan zen, dekoratuak guk geuk egin behar izan genituen asteburuak aprobetxatuz eta grabaketa, berriz, aste santua aprobetxatuz, hiru egunetan. Ondoren dena desmuntatu eta guztia zegoen bezala utzi. Hala ere egindako lanak merezi izan duela uste dugu, bideoklipak oso harrera ona izan duela sumatzen dugulako. Eskertu beharrean gaude Udaletxeko Kultura Batzordea eta lagundu gaituzten pertsona guztiei, guregan jarri duten konfidantzagatik.

Diska kalean...

Laumonoren 3 disken pack-a atera dugu 15 €tan (izakinak agortu arte), eta hiruretako edozein bakarka nahi izan ezkero 10 €tan. Informazio gehiago "Laumono Ofizala" facebook orrialdean aurkitu daiteke.

Aurrera begira...

Guk orain arte bezela jarraitzeko asmoa daukagu, irailetik aurrera zuzenekoak emateko prest eta abesti berriak sortzeko irrikaz.









ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

SAN JUAN
JATETXEA
koadrila afariak, bazkariak, bataioak, eguneko menua...
urteko egun guztietan zabalik
Mutriku-Deba errepidea, Laranga auzoa
Tel.: 9433117 (etxekoa) 943603167 (jatetxekoa)

Mutrikuko errelikixak

Oraingo aldian, sasoi baten, erakarmen haundixagua sortzen zeuen errelikixek. Eleiza gehixenetan egoten zan Jesukristoren jarraitzaille fiñenen errelikixaren bat, baitxa Mutrikun ere. Egun seiñalatuetan abadiak errelikixa-ontzixa edo errelikarixua eskuetan hartu eta han hurreratzen zakozen illaran eleiztarrak mun ematera.

Bai erderazko reliquia, bai euskeraz erabiltzen ditxugun *errelikixa* eta *erlikia* hitzak, latiñetik datoz (*reliquiae* 'hondakiñak, hondarrak'); eta latiñezko hitz hori *reliquus* ('gaiñerakua, sobrantia') formatik. Azken hori, berriz, *relinquere* ('utzi') aditzian deu sorburua.

Gorpuzki hitzak ere sarritxan esanahi hori eukitzen deu, baiña, guk ez degu erabilliko gorputzarekin zerikusirik ez daken errelikixak ere aitxatuko ditxugulako: kurutze pusketia, hillobi zatixa...

Vatikanoko II. Kontziliuak jaso zoanez, tradiziuaren arabera, Eleizak santuak erreferentetzat hartzen ditxu eta beuren irudixak eta errelikixak ondratzen ditxu. Errelikixak ez dira kristau siñismenaren oiñarrizko elementuak, hori kontu jakiña da, baiña eleizetako kuadro eta eskultura askok bezela, Jaungoikuarengana aillegatzen laguntzen badixue... ederki!

Lehelengo errelikixak

1746ko ilbeltzaren 2xan Esteban Manuel Agirre Arratabek, Mutrikuko Andre Maria eleizako maiordomuak, berri pozgarrixa eman zion udaleko osoko bilkurari: Frai Domingo de Astigarribia abade ezagunak (Italiako bikaixua eta Erromako Mesedetako Andre Mariaren ordenaren prokuradoria zan) bost errelikixa-ontzi erregalatu zixuezen mutrikuarrei, eta, jakiña, barruan errelikixa preziatu batzuk zamezen: "*cinco reliquiarios, con sus autenticas, en las que se veneran un li[g]nun cruzis, Sn Anttolin, Sn Cosme y Sn Damian, Santta Agueda y Santta Mª Magna*". Errelikixa harekin batera Turin herrixan (Italia) dauan Izara Santuaren kopixia ere bialdu zoan.

Erabaki zeuen eskerrak ematia Erroman bizi zan mutrikuarrari eta maiordomuari esan zixuen etxian eukitzeko errelikixak harik eta eleizan toki aproposa prestatu arte: "*encargandole, retirase en su casa dhas reliquias, y las custodiase ynternin que la villa ejecute un colateral en su parroquia, y entre el Altar del Apostol Sn Pedro, y la puerta que se sale a la calle nombrada Aiziocale, y echo que sea, con la maior perfecion a costa de la misma Villa, se pongan dhas reliquias, con la devida venerazion en dho colateral, trasladándolas con ponpa de misa maior, tedeum y sermón*". Eleizia gaur egungo Beheko plazan zauan orduan.

1748ko apirillaren 16an, lan harek amaitxuta, errelikixak eta Izara Santua eleizara eraman zitxuen bertan gordetzeko. Prozesiua egin zeuen Mutrikuko kalietan barruna. Ondoren, mezia eta "Te Deum"a. Udalak garrantzi haundikotzat jo zoan haura, eta bere neurriko ospakizuna egin zan: "*Salva General de la Artilleria, Alarde de fusileros, y tambor con refresco en el concexo por la tarde*".



Galbaixoko errelikixa

Izara santua

Baiña Izara Santua errelikixa al da? Bai, halakotzat jotzen zan Turiñen dauanari ikutu ziolako: "*...savana santa y demas reliquias*" (1748); "*la reliquia de la Savana Santa*" (1764). 1890. urteko inbentarixuak garbi azaltzen deu: "*Un relicario de madera dorado en el que está incluida una sábana santificada por contacto de la verdadera*".

Lignum crucis

325. urte inguruan Santa Elenak, Konstantino enperadoriaren amak, Jesukristo hiltzeko erabilli zeuen kurutzia topau zoan Jerusalenen. Kurutze horri *Vera Crux* ('benetako kurutzia') esaten zako. Eta bertatik ataratako errelikixei "lingum crucis", 'kurutzeko egurra' hain zuzen ere. Mutrikukua egurra baiño zozpala da. Edo "zan", argitzeko dago-eta jatorrizko lignum crucis-a Mutrikun ete daguan.

Ez dakigu 1746. urtian Erromatik ekarritxako lignum crucis haura parrokiko txokoren baten ete daguan. Baiña 1890. urtian bazan, orduko inbentarixo batek hola jasotzen deu-eta: "*Un relicario de plata maciza con las reliquias del lignum crucis y Santa Maria Magdalena*".

Galbaixoko errelikixia

Galbaixoko ermitxan ere bado errelikixa bat; errelikarixua bai behintzat. Galbaixo egunian ateratzen deue mun emateko, ospakizunaren ostian.

Industrias Egañako anaixek Jerusalendik ekarritxako erregalua ei da. Batzuek esaten deuenez Aitxa Galdos jesuita eibartarraren (Romualdo Galdos, 1885-1953) bitxartez ekarri zeuen.

Galbaixoko kofradixakuak izan ziran egañatarrak, Ramon Egaña presidente egon zan eta Luis eta Martin anaixak juntan ibilli ziran.

Kurutze formako errelikarixo dotoria da, urre kolorekua. Erdixan biribiltxo bat daka, errelikixa gordetzekua itxuria.

Errelikarixo azpixan, grabatutako testu hau irakurri leike: "Christo Calvariae Grates Sempiternae. Industrias Egaña. Motrico, 2 Mayo 1953". Latiñetik euskerara ekarritxa:

'Kristo Galbaixokua, betiko esker ona'.

Urtebete lehenago, 1952xan, Parrokixako objetuen inbentarixua egin zan eta erregistro deigarri hau topatu degu bertan: "*1 [relicario] de plata, del Calvario*." Errelikixa bera ete da? Ala 1746. urtian ekarritxako lignum crucis-a izango da?

Pasadizo xelebria izan zoan egañatarren errelikixak. Handik eta hemendik osatutako historixia: Galbaixoko ermitxan ostuko zeuen bildurrez-edo, Egañaneko fabrikan gordetzen zeuen errelikixa, bertako kaja fuertian. Baiña, halako baten, lapurrak sartu eta bertako diruarekin batera errelikixia ere eruan zeuen. Handik urte batzuetara, lapurra Mutrikuko abare batengana juan eta lapurretaren berri eman zion, konfesioko sekretupian. Galduamendirako kamiño bazterreko txabola baten agertu zan errelikixa. Herriko abadiai eraman zixuen, eta, jakiña, harek berriz ere Galbaixora eraman.

Parrokixakuak

Adin batetik gorakuen ondo gogoratuko deue Madalen egunian, meza nagusixan, Santa Maria Magdalenaren errelikixia ateratzen zeuela. Meza amaieran herritxarrak illaran jarritxa Maria Madalenaren errelikixari mun ematen zixuen.

Ez zan hori, baiña, parrokixan zauan errelikixa bakarra. Beste bi errelikarixo ere bazozen. Bata, Loiolako San Iñaziorena zan. Garagarrillaren 31n ateratzen zan mun emateko, noiz bestela. Itxas-aurre kronikagilliak 1929ko San Iñazio egunaren berri eman zoan Argia astekarixan: "*Meza nagusi ederra Txadonako [Eleizako] abeslariak abestuta; onen ondoren muñ egin ginion relikiari abesturik gure indar guztiarekin "Iñazio*". Hurrengo urtian ere bai: "*Bederatzi terdietan meza nagusia itzaldiarekin ta onen ondoren muñ egin giñion bere gorputzari*" (Argia, 1930).

Beste errelikarixua berezixa da, izan ere 13 errelikixa dakaz barruan. Bakoitzaren aldamenian izena agertzen da. Kanpoaldeko biribillian: *S. Andreae ap., S.Petri ap., S.Annae M.V.M, S. Pauli apost., S. Jacobi M.ap., S.Tomae ap., S. Simonis ap., S. Philippi ap., S. Bartholom ap. (San Andres, San Pedro, Santa Ana, San Paulo, Santiago, San Tomas, San Simon, San Felipe eta San Bartolome). Erdiko karratuan, berriz: Ex columna D.N?J?, Ex sepulcro B.V.M., S. Joseph spons., S. Joachim P.V.M.* (Flajelazioko zutabekua, Ama Birjiñaren hillobikua, San Jose eta San Joakin).

Errelikixa gehixago

Urtian bi egunetan baiño ez ziran ateratzen Komenduko errelikixak: Nazareno egunian eta Galbaixo egunian. Errelikixa-ontzi bakarra do bertako sakristixan baiña, parrokixako errelikarixo berezixan bezela, han ere errelikixa asko doz: hamar.

Mijoko San Jeronimo ermitxan, sasoi baten, mun ematen zakon santuaren errelikixari. San Jeronimo egunian, meza ondorenian, abadiak biribiltxo baten zauan errelikixa txikixa hartu, eta, holakuetan ohitxueria zan bezela, mun emateko eskeintzen zixuen eleiztarrei; mun eman ahala traputxo batekin garbitzen zoan.

Astigarrabixako San Andres eleizan ere egon zan errelikixia. 1879-1890 urte bitxartian bertan parroko egondako Jose Etxeberriak 1890. urtian egindako inbentarixuan garbi azaldu zoan: "*Una reliquia de San Andres que traje de Roma*". Baillera eder hortan jaixotako bati baiño gehixori galdetu arren, iñork ez deu San Andresen errelikixa haren berri. Nun ete do?

San Gregorio

Urte askuan Naparruako Sorlada herritxik ekartzen zen ura Mutrikura, bertako soluak bedeinkatu eta mamorruak ez ugaltzeko; 1685-1818. urtietan dokumentatu degu: "*agua pasada por las reliquias de San Gregorio, para la defensa del fruto que esta en los campos*". Herri hartan San Gregorioren buruhazurra dakae eta bertatik pasatzen zeuen ura.

Beste herrixetan ere bai

Elgoibarren, konparaziotarako, San Pedro, Madalen eta San Roke egunetan ateratzen zitxuen errelikixak mun emateko. Hona hemen, hurrenez hurren, "Aixerixa" ezizeneko berri-emailliak Euzkadi egunkarixan (1927) idatzitxakuak: "*Deun Kepa. Txonitza [sermoia] oso ederki egin zuan Yeregi'tar Joseba apaizak, azkenian erlikia emanik mun-egiteko" / "Urtero bezela aurten ere ospatu dabe Madalen euren Zaindaria uri onetako Gexo-etxe'ko lekaimiak (...) goizeko eleizkizuna amaitu zan erlikia mun-egiteko emonaz" / "Deun Erroka. Jaupa [meza] ostian erlikia eman zan*".

Baten batek ezagutzen badeu hemen aitxatu gabe lagatako errelikixaren bat, pozik jasoko genduke horren berri.

Josu Larrañaga Arrieta



Zein ete da?



Loiolako San Inazioren errelikixa



Errelikixa

Burumendi goi mailako espedizioan

Ilaminako sistema / 2021eko Larrako kanpaina

Larrako mendigune karstikoan burutu den hamaikagarren espeleologia zientifikoko kanpainaren parte izan dira Burumendiko kideak. Hamabost egun etenik gabe bertan izan dira, eta aurrez hainbat asteburutan zamaketa lanak burutu dituzte. Ilusio haundiz, eta izugarrizko esfortzua eskatzen duen kanpaina honetan beraiekin izan gara.



Lur azpiko espedizoak ez ditugu ezagutzen eta ez dira oso entzunak; bai ordea, mendi gailurrera egiten direnak. Eta, horien zailtasun eta arriskuak nabarmenak dira. Gainera, beharrezko antolakuntzaren gorabeherak ere ikusiko genituen dokumetal edota aldizkariren batean. Bada, imaginatu hori guztia lur azpian; paret bertikalen eskaladak, lotarako kanpamenduak, materialen garraioa, elkar komunikatzeko irrati bidezko muntaia… Argirik heltzen ez den mundu horretan dena gogortzen da: gauzarik txikiena ere handi bihurtzen da.

Uztaileko lehen asterako martxan jarri ginen Burumendirekin batera, aurreko prestaketa guztian murgildu nahian; honelako goi mailako espedizio batek dituen gorabehera guztiak ezagutzeko irrikaz. Iada, koordinatzaileen urdiritasuna nabaria zen, nahiz eta aurreko astean burututako bileran dena ongi lotua izan. Hain zuzen ere, Euskal Espeleo Elkargoak (EEE-UEV) bul-tzatzen eta kudeatzen duen espedizioa da hau, Nafarroako Espeleologia Federazioak babestua. Aurten, berrogeita bost izen emate izan dituzte. Eta, Mutrikuko taldetik 11 lagun apuntatu dira, horietatik bik ardura nabarmena izanik. Kontuan hartu, hamabost taldetako espeleologoak bildu dituela kanpaina honek, eta horien artean Belgikarrak eta Granadakoak ere izan ditugu. Horrexegatik, koordinatzaileen lanak berebiziko garrantzia hartzen du; beraien kezka eta arduraz jabetzeko parada ere izan dugu.

Aipatu bezala, uztaileko hilabetean hasi ziren zama lanak egiten, eta gu ere bertan izan ginen; Linzako aterpetxetik “La Hoya” izenekora. Bi aste igarotzeko muntaia guztia lan astuna zen: kanpamendu nagusia muntatu, argi indarra lortzeko eguzki plakak eta eoliko txiki bat jarri (argindarra behar-beharrezkoa da erabiliko dituzten tresnen bateriak kargatzeko), komunikazio guneetan antenak ipini, eta euria hasi aurretik lotarako kanpin denda txikiak muntatu. Hasierako lan guztiak bere garrantzia





ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



dauka, eta horretan Burumendi taldeak izugarrizko bultzada eman du, buru-belarri aritu baitira.

Igoerako arratsalde hartan, gaua pasatzeko beharrezkoa bakarrik jarri genuen, hurrengo egunerako zamalanak egiteko deskantsatu beharra baizuten taldekideek. Eguraldiak hutsik egin gabe, goizaldean behe-laino artean esnatu ginen; tenperatura ere nabarmen jaitsi zen. Taldekide batzuk Linzara jeitsi ziren, besteak kanpamendu basean geldituta. Egun hartan, zamalanak egiteko hainbat taldetako kideak bildu ziren, eta, aurreko urteetan bezala, igo beharreko guztia denen artean banatu zuten, bakoitzak bere indarren araberako pisua bizkarrean edota lepoan hartuta. Mendian maldan gora eta behera kargarekin ibiltzea ez da txantxa, ez! Erraza dirudien arren, begibistakoa zen bakoitzak egiten zuen esfortzua: bakoitzaren aurpegian nabari zen. Hala eta guztiz, jendearen ilusioak zamaren astuna garaitzen zuen. Prestaketa lan guztiak egin ondoren, eta eguzkia mendien atzean ezkutatzen hasten zen heinean kanpamenduko lagun arteko giroa berotzen hasi zen. Aurrez ezagutzen ez ziren kideen arteko gaueko tertuliak eta algarek bizitasuna ematen zioten kanpamenduari. Bakoitzak hurrengo egunerako asmoak zituen ahoan; ilusioa eta urduritasuna beraien irriparreekin besarkatzen zen heinean. Eta, gu, horren guztiaren konplize bihurtu ginen gure kazetari lanean.

Goizaldean, talde bakoitzak bere helburuak garbi zituen: koordinatzaileak izan ziren horiek errepasatu eta taldearekin adostu zituztenak. Egindakoaren egunerokoa idatzi zuen talde bakoitzak, zehaztasun txikiena ere apuntatuz; detaile txiki horiek lur azpitik 1000 metrora izugarrizko garrantzia hartzen baitute; horien artean, "vivak" kanpamentu bakoitzean dagoen janaria, edota material teknikoa. Hurrengo sartuko den taldearentzat ezinbesteko informazioa da. Talde txiki horien parte ere izan dira Burumendikoak. Ez dezagun ahaztu, taldekide bat BU56ko leizean 1000 metro azpira jeitsi dela, eta bigarrena 800 metro azpira, bertan, bost gau igarota. Beharrezko guztia "vivak" guneetan izan dute (aurrez material guztia sartzen da). Hala eta guztiz, ez da dena materiala eta janaria; horrekin batera, sartzen den espeleologoaren maila fisikoa eta mentala ezinbestekoak dira: "*azkenean, espeleo asko egiten dugu, indartsu gaude fisikoki eta mentalki, esperientzia haundia daukagu, ordea, gogorra egiten da. Aurten, lehen aldiz sei eguneko sarrerak egin ditugu, bost gau lur azpian, eta, igarri egiten da. Sakonera bajatzen zauden bitartean, pausu bat aurrera egiten duzun guztietan, badakizu, kanpotik, hau da, lurrazaletik, geroz eta urrutiago zaudela. Hain sakonera handian sartzen zarenean ondokoaren babesa beharrezkoa da, lehenago edo beranduago emozionalki behea jotzea ez baita zaila*". Ondokoaren animoak eta babesa garrantzitsua da. Horregatik sakonera sartzen diren taldeak orekatuak izaten ahalegintzen dira koordinatzaileak. Horrez gain, bi egun behar izaten dituzte 1000 metrora jeisteko eta bi egun igotzeko, beraz, lan egiteko bi egun besterik ez zaie gelditu. Dena dela, Burumendiko taldekide eta koordinatzailea denak, sei egun baino gehiagoko sarrerak egitea ez du aholkatzen; "*fisikoki ahultzen zoazelako eta buruak kanpora irtetzea eskatzen dizulako*".

Hau guztia gutxi balitz, sakonera horretan egiten duten lan guztiaren datuak jaso behar dituzte. Egiten diren esplorazio eta topografien datu guztiak lurrazalera bidaltzea ezinbestekoa da.



ALEX
ELEKTRIZITATEA
Alexander Elezgarai Agirrebengoa
· instalakuntza elektrikoak · domotika · telekomunikazioak
· mantenu eta muntaia elektrikoak · argiztapen diseinuak
638 713 685 • alexmutriku69@gmail.com · Mutriku


ALKOLEA
ARDOTEGIA
Jon Andoni Basurko Pagoaga
Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku
Edariak
eta gehiago...

"*Ilaminako atearen leizan 2013an hasi genituen esplorazioak Nafarroako Espeleologia Federazioak (NEB-FNE) eta Euskal Espeleo Elkargoak (EEE-UEV). Hasierako helburua Ilaminako leiza esploratzea izan bazen ere, hura topografiatzen hasi eta horretan jarraitzeko beharra ikusi genuen, aurrez eginiko topografiarekin alde handiak zeudela ikusi baikenuen. Izan ere, aurrekoa 1980an Amalgamek (Arsipen barne zegoen kolektiboak) eginikoa zen; talde belgiar eta frantsesak zeuden bertan, "frantziar elitea", eta baita nafarrak ere (gaur egun batzuk kanpainaren parte dira oraindik). Hori dela eta, 2014ko helburua topografia egitea izan zen. Hortik aurrera egindako lanari esker 28 kilometro topografiatuak daudela esan dezakegu. A60 leizearekin lotura egin eta, horrela, BU56 sistema sortu zen*" adierazi digu Burumendiko kide eta Larrako koordinatzaileak. Horrela, lur azpitik zuloaren ibilbidea luzatzen joan den heinean derrigorrezkoa bilakatu da lur azaletik beste sarreraren bat aurkitzea. Horregaitik, lehendik lokalizatuak zeuden azaleko zuloak berriro esploratzea helburu bilakatu da. Hain zuzen ere, azken bi urteetan A60arekin hori gertatu da. Aurtengo helburuetako bat batez ere horixe izan da: topografia egin eta topografiari bukaera ematea.

Horrez gain, 800 metrotara jeitsi den taldeak leizeko tenperaturak hartu eta barruko argazkiak ateratzea izan du helburu. Tenperaturak hartzeko aparailu bereziak erabili dituzte. Hortaz, luzerako lana izango da, eta, urteetan zehar sakoneran tenperaturak nola aldatzen diren aztertzeko aukera izango dute. Bestalde, barruko errekak daraman uraren maila ere neurtzen ahalegindu dira.

Kanpainan zehar Pirinioetan izan dugun eguraldia aldakorra izan den arren, ez ditu zapustu aurrez zehaztutako helburuak. Aldaketa nabarmena muntaiaren egunaren aurrerapena izan genuen. Eta, egun horretan Burumendi taldearekin batera igotzeko aukera izan genuen; aldaketek suposatzen duten esfortzuaren eta urduritasunaren testigu izan ginen. Bestalde, ekaitza ere izan genuen gau batzuetan, baina, leizearen barruan zeudenentzat inolako arriskurik ez zuen ekarri; euri kantitate txikia izan baitzen bota zuena. "*Eguraldiak igoerako datak aldatzera behartu gintuen, zapatutik ostiralera aurreratuz. Beraz, kanpamendu basearen muntaia ostiral arratsaldera aurreratu genuen, baita Linzatik Larrarako igoera (material guztiarekin) ere*" dio Burumendiko kide batek. Bestalde, eguraldiaren partea sakonean dauden taldeei helaraztea eguneroko lana da. Lurrazaleko kideak sakonean daudenekin komunikatzea ezinbestekoa da. Horretarako, aparailu bereziak jartzen dira Larrako mendigunean zehar. Sakonera ezberdinean dauden taldeekin komunikatzeko leku eta ordu jakin bat zehazten da. Burumendiko kideek ardura nabaria izan zuten komunikazio horietan: "*barrukoekin (lur azpian 1000 metrora daudenekin) ez dugu hitz bat bera ere egitea lortu orain arte. Pentsatzen dugu beraiek entzuten gaituztela, baina, ez daukazu ziurtasunik. Gaurkoan, hala eta guztiz bikain. Entzun eta erantzun gaituzten ziurtasuna daukagu, nahiz eta erantzuna "morse" itxuran izan den. Gure aldetik, eguraldiaren berri eman diogu. Horrez gain, 800 metrora daudenekin ez gara komunikatu, baina bai 500era dagoen taldearekin. Eta, A60ko taldearekin mantentzen dugun harremana irrati-kable bidezkoa da; horiekin oso ondo!*".

Komunikazioaren garrantzia, antolaketaren koordinazioa, sakonerako lan zientifikoa eta bakoitzak eskaintzen duen esfortzuak eta ilusioak ahalbidetzen du horrelako espedizio batek aurrera egitea; eta guzti horren lekuko izan gara. Urte osoko lanaren emaitzak izango dituzte laister esku-artean, eta, badakigu, bai, datorren urteko Larrako kanpainareko helburuen zirriborroa ere martxan jarri dutela. Hala eta guztiz, Arnoko karstean jarraituko dute jolasean, karamelurik goxoena bertan baitute.

Bejondaiela Larran izan diren espeleologo guztiei, eta bertan dabiltzan guztiei; talde bat baino gehiago baitabiltza.









XARKEIren marmarketa

esaera zaharrekin jolasean

1 *San Antolin,*	a *Erromako zubia.*
2 *Jan da lo,*	b *aldaparik ez.*
3 *Kalean uso,*	d *potolo.*
4 *Gustuko lekuan,*	e *belaunetik behera.*
5 *Eguzkia eta euria,*	f *erdia ustel.*
6 *Usteak,*	g *nekez etorri eta joan arin.*
7 *Sua eta ura,*	h *etxean otso.*

Erantzunak: 1-g 2-d 3-h 4-b 5-a 6-f 7-e

gurutzegrama



1 Arraunari eusteko karelean jartzen den makilatxoa.
2 Arrauna toletari lotzeko erabiltzen den espartzuko edo kalamuzko uztaia.
3 Itsasontzia zuzentzeko erabiltzen den gailua.
4 Itsasontzia zuzentzeko erabiltzen den elementua.
5 Itsasontzi bateko bizkar edo kubiertatik altxatzen den ertza.
6 Itsasoan zehar nabigatzeko erabiltzen den ontzi publiko edo pribatua.
7 Itsasontziaren aurreko partea, ibileraren norabidea zehazten duena.

Erantzunak: 1 Toleta 2 Estropa 3 Lema 4 Gilla 5 Karela 6 Enbarkazina 7 Branka

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia



ZORIONAGURRAKZORION



MAREN
Malenetan urte berri bat bete zenuenez, Zorionak! Guraso, aiton-amona, Lehengusu Peio eta izeko-osaben partez.



ARAIA, OINATZ eta MARA
Zorionak hirukote! Jarraitu beti bezala alai eta txintxo. Eta, txokolate goxo batekin ospatzeko zain izango gaituzue Ibiriko sendiak.



GURUZNE
Zorionak munduko ama onenari. Segi zaren bezalakoa izaten. Matxe matxe.



PEIO
3. urtebetetzian, zorion bero bat guraso, aiton-amona, izeko-osaba eta lehengusu Maren eta Hodeiren partez.



ANER
Zorionak! Irailaren 25ean 10 urte! Ondo pasa eguna! Etxeko danon partez muxuuu Bereziki Danel, Adei, Ibai, Enaitz eta Eber.



BEÑAT
Zorionak txapeldun! Besarkada eta matxo haundi bat amona Klarita eta osaba Ikerren partez. Jarraitu beti bezalako jator!



LAGUNA
Zorionak, lagun! lagun zarelako!



LAGUNA
Zorionak lagun! Behar zaitudanean beti hor zaudelako!

ZORIONTZEKO
ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO
kalaputxi2001@gmail.com # whatsapp 635748393

IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Irziarko poligonoa, C pabilioia · 20200 ITZIAR · Tel. 943 199226 · www.ibarplas.com · ibarplas@ibarplas.com

Argazki Zaharrak



Lagun koadrilla, 1972 urteko udan, lehenengo plaiako sarreran
Ezkerretik: Itziar Egurbide, Osa "ondarrutarra", Marifer Garagarza, Maria Angeles Arreitunandia, Jaione Ozkorta eta Marisol Ozkorta. Behian makurtuta: Joseba Aramaio.



Atxukalian Mari Campos, Elvira "Katxo", Ramonita Osa eta Margarita Eizagirre.



Beheko plazan
Pilar Campos, Ramonita Osa eta Mari Campos





FARMAZIA GUARDIAK 2021

2021	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	2021
Iraila	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	1	1	4	4	4	4		Iraila
Urria	3	3	3	1	1	1	1	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	2	1	1	1	4	4	4	4	3	3	3	Urria

EGUNEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 9:00 - 22:00				
1	Hiart Burgoa	Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi	Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	Lon Apraiz	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	Lasuen-Elezgarai	Mutriku	Txurruka Tenienteak etorbidea 3	943 19 50 26
GAUEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 22:00 - 9:00				
	Arantzazu Izpizua	Eibar	Ibarkurutze kalea 7	943 20 19 12

HISTORIA JARDUNALDIAK

irailak 21etik urriaren 5era
ERAKUSKETA: SATURRARAN

irailak 21, asteartea
18:00etan Erakusketaren inaugurazioa
19:00etan Hitzaldia: Saturraran Elkartea, memoria historikoaren inguruan

irailak 23, osteguna, 19:00etan
Hitzaldia: Frankismo garaiko zinea.
Hizlariak: Javi Buces eta Kepa Sojo
Moderatzailea: Unai Belaustegi

irailak 30, osteguna, 19:00etan
Hitzaldia: Frankismoaren errepresioa: Heriotza, Erbestea eta Espetxea.
Hizlaria: Iosu Txueka
Moderatzailea: Leyre Arrieta

Urriak 2, larunbata
Saturraran elkartea memoria historikoa taldearen eskutik ibilaldi historikoa

TXOTXONGILOAK

urriak 3, igandea, 18:00etan
Zabiel ganbaran
Ipar Eszena bidea programaren baitan
"La gallina azul" ikuskizuna

MENDI IRTEERAK

URRIAK 17
Elurretxe-Bianditz-Artikutza
AZAROAK 7
San Tirso
ABENDUAK12
Debako mendi inguruak
Urte zaharretako bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393
urriko aldizkarian
argitaratzeko
urriaren 8rako
bidali zuen mezuak

ODOLA EMATEA 2021

urriak 22
abenduak 03
18:00etan
anbulatorio zaharrean edo jakinaraziko den tokian

Gipuzkoako Odol Emaileak

EUSKALINPRI
Soluzio grafikoak • Soluciones gráficas
ZURE NEGOZIOA SUSTATZEKO BEHAR DUZUN GUZTIA
NURIA VÁZQUEZ
M.659 45 36 57
nuria.vazquez@euskalinpri.com
T. 943 19 20 36
info@euskalinpri.com
Irudi korporatiboa: logotipo
Logotipoa + eskuliburua
Argitalpen grafikoa
Katalogoak
Kartelak
Offset inprezio lana
Inprezio digitala



HURBILDU ZAITEZ!

Antigimnasia®

Deskubritu **Antigimnasiak** zure alde egin dezakeen guztia

Proba ezazu DOAN
saio batean Mutrikun bertan

irailaren 28an, 18:00etan edo urriaren 2an, 10:00etan

GORDE EZAZU ZURE TXANDA

943603655 · islada@islada.org

islada
FISIOTERAPIA

OKILA
S.L.

OKILA
AROZTEGIA

GURE LAN-IBILBIDEA IRITXI DA AZKEN PORTURA
ESKERRAK GUREGAN KONFIDANTZA IZAN DUZUEN BEZERO GUZTIOI

Isidor eta Trantxo

MATRIKULA EPEA ZABALIK

urriaren 1etik 8ra

abenduan eta urtarrilean hasteko

otsailean hasteko, abenduaren 1etik 10era









Mutrikuko Haurreskola

Haurreskola txikia, familia handia

943 60 41 19
mutriku.mutriku@haurreskolak.eus
www.haurreskolak.eus

HaUrreSkoLaK